



**Recurso 7/2015 Errekurtsoa**  
**Resolución 8/2015 Ebazpena**

Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Idazkari - Kidea / Vocal - Sekretaria

M<sup>a</sup> Aranzazu Arana Learte

AUTOBUSES BETOÑO S.L. enpresak kontratazio arloko errekurtso berezia jarri du Tolosa, N-I, Buruntzaldea eta Donostiarekin dituzten loturak errepideko herriarteko bidaiarien garraiorako zerbitzuak emateko kontratuaren lizitazio iragarkiaren eta baldintza agirien aurka (LUR-M-05) (7-MO-53/2014-M2). Bada, errekurtso berezi hori dela-eta, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, 2015eko uztailaren 22an egindako bileran, goian aipatutako kideak bertan daudela, erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por AUTOBUSES BETOÑO S.L. contra el anuncio de licitación y los pliegos del contrato de concesión de los servicios de transporte público regular de viajeros de Tolosa, N-I, Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián (LUR-M-05) (expediente 7-MO-53/2014-M2), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 22 de julio de 2015, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** 2015eko uztailaren 9an sarrera eman zitzaion Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren erregistroan (...) AUTOBUSES BETOÑO S.L. enpresaren izen eta ordezkapenean aurkeztu zuen idatziari; idatzi horren bidez, kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen, ebazpen honen goiburukoan aipatzen den egintzaren kontra.

Errekurtsoa jartzeko idatziarekin batera, agiri hauek aurkezten ditu: parte hartzailearen ordezkariaren egiaztatzen duen agiria, errekurritutako baldintza agirien kopia, eta aldez aurretik errekurtsoa jartzearen berri ematen duen idatziaren kopia, hala agintzen baitu 44.1 artikuluan Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginak (aurrerantzean, Kontratuen Legea), 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak. Erantsi dizkiote, baita ere, errekurtsogileak beraren eskubidea oinarritzeko aurkeztu dituen agiriak.

**BIGARRENA.-** Kontratuen Legeko 46.2 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak errekurtsoa bidali dio Auzitegi honi, kontratazioko espediente administratiboarekin batera eta dagokion txostenarekin batera. Hori guztia uztailaren 17an sartu da Auzitegiaren erregistroan.

**ANTECEDENTES**

**PRIMERO.-** El 9 de julio de 2015 tuvo entrada en el registro del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio un escrito por el que (...), actuando en nombre y representación de AUTOBUSES BETOÑO S.L., interpone recurso especial en materia de contratación contra el acto citado en el encabezamiento de esta resolución.

Al escrito de interposición se acompaña el documento que acredita la representación de la persona interviniente, así como copia de los pliegos recurridos y del anuncio previo al que se refiere el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSP). Se acompañan también los documentos en los que la recurrente funda su derecho.

**SEGUNDO.-** Conforme a lo dispuesto en el párrafo segundo del artículo 46.2 TRLCSP, el Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio ha remitido el recurso a este Tribunal, junto con copia del expediente administrativo de contratación y el correspondiente informe. Todo lo cual ha tenido entrada en el registro del Tribunal el día 17 de julio.

**ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

## Errekurtsoa onartua izateko aukera

**LEHENA.-** Zerbitzu publiko bat emakida administratiboaren bidez kudeatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egin behar duen kontratazioa dela eta, kontratazio horren lizitazio iragarkiarene eta baldintza agirien aurka jarri da errekurtso berezi hau. Zerbitzu publiko horrek 500.000 euroko baino gehiagoko aurrekontua du urteko, eta bost urte baino gehiago iraungo du.

Beraz, Kontratuen Legeko 40. artikulua (1.c) eta 2.a) ataletan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke, eta Auzitegi honek eskumena du horren gainean erabakitzeke, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboaren sorrerari eta araudiari buruzko 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak 2.3.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Errekurtsoa Kontratuen Legeko 42. artikuluan xedatutako legitimazioaren eskakizuna betetzen duen pertsona batek jarri du, betiere 44.2.c) artikuluan finkatutako epearen barruan eta asmo horren berri, 44.1 artikuluan ezarritako eran, kontratazio organoari aurretik emanda.

## Gaiaren mamia

**HIRUGARREN.-** Gora jotzen den kontratazio espedientearen aurretik, xede bereko beste bat izan zen, zeinaren lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 28an. Bertara, bi eskaintza aurkeztu ziren, horietako bat AUTOBUSES GARAYAR SA, HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SA eta COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA SA enpresek aurkeztua, eta bestea NEX CONTINENTAL HOLDINGS SLU eta TRANSITIA SLk aurkeztua.

Kontratua esleitu aurretik, Epaimahai honek 5/2015 Ebazpena eman zuen, martxoaren 23koa, zeinaren bidez, AUTOBUSES BETOÑO SLk ezarritako 3/2015 kontratazioko errekurtso berezia zati batean onartuta, deuseztatu egin baitzen kontratuaren administrazio baldintza berezien agiriaren karatulan aurreikusitako linea zerbitzu erregularren prezioa balioesteko formula eta, ondorioz, lizitazio prozedura osoa.

Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zitekeen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabakia jakinarazi zen egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Epe hori igaro zen inolako errekurtsoren berri izan

## Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se plantea contra el anuncio de licitación y los pliegos aprobados por la Diputación Foral de Gipuzkoa de un contrato de gestión mediante concesión administrativa de un servicio público cuyo presupuesto anual es superior a 500.000 euros y el plazo de duración superior a cinco años.

Por lo tanto, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 1.c) y 2.a) del artículo 40 TRLCSP, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación, y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, por así venir establecido en el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 42 TRLCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 44.2.c) y habiéndolo anunciado previamente al órgano de contratación en la forma prevista en el artículo 44.1.

## Fondo del asunto

**TERCERO.-** El expediente de contratación que se recurre fue precedido de otro anterior con el mismo objeto cuya licitación fue anunciada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 28 de enero de 2015, y en el que se presentaron dos proposiciones, una de ellas formulada conjuntamente por las empresas AUTOBUSES GARAYAR S.A., HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA S.A. y COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA S.A., y la otra por las empresas NEX CONTINENTAL HOLDINGS S.L.U. y TRANSITIA S.L.

Antes de que se procediera a la adjudicación del contrato, este Tribunal dictó Resolución 5/2015, de 23 de marzo, por la que, estimando en parte el recurso especial en materia de contratación 3/2015 interpuesto por AUTOBUSES BETOÑO S.L., anuló la fórmula de valoración del precio de los servicios lineales regulares prevista en la carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares del contrato, y, por tanto, la totalidad del procedimiento de licitación.

Contra dicha resolución cabía interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Habiendo transcurrido ese plazo sin tener constancia



gabe, eta Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak beste kontratazio espediente bat abiaraztea erabaki zuen. Horrela, 2015eko ekainaren 16ko Diputatuaren Kontseiluaren erabakiz, Tolosa, N-1, Buruntzaldea eta Donostiako loturak izeneko bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuak eskaintzeko emakidaren (LUR-M-05) (7-MO-53/2014-M2) espedientearen proiektua onartu zen, Administrazio klausula berezien agiriarekin eta baldintza teknikoen agiriarekin.

Lizitazio iragarkia ekainaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta bertan 60 egun naturaleko epea ezartzen zen eskaintzak aurkezteko.

Hala ere, iragarkia argitaratu eta bi egunera, hau da, ekainaren 24an, Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren ofizio bat sartu zen, non eskatzen baitzen 5/2015 Ebazpenari dagokion administrazio txostena, AUTOBUSES GARAYAR SA, HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SA eta COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA SA enpresek gora jo baitzuten ebazpen hori (280/2015 ohiko prozedura).

Kontratazio alorreko errekurso berezi honek xede du indarrrik gabe uztea lizitazioa, agirietan hainbat legehauste daudelako. Orobat eskatzen du, kautelazko neurri gisa, eskaintza ez daitezela zabaldu eta balioetsi errekurtsua ebazten den arte.

**LAUGARREN.-** 280/2015 administrazioarekiko auzi errekurtsuaren berri izan eta gero, eta, ondorioz, jakinda Epaimahai honen 5/2015 Ebazpena ez dela irmoa, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak erabaki du kontratazio espedientearen atzera egitea. Izan ere, aurrera jarraituz gero, segurtasun juridikorik eza sortuko litzateke, Administrazioari nahiz interesdunei larriki eragingo liekeena.

Departamentuaren titularrak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, uztailaren 14ko bilerak, erabaki du atzera egitea 2015eko ekainaren 16ko erabakiz hasitako kontratazio prozedura. Atzera egite hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da uztailaren 16an.

**BOSGARREN.-** Kontratazio organoak esleipena prozeduran atzera egiteak errekurtsu hau amaitzea

de la interposición de recurso alguno, el Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias juzgó oportuno iniciar un nuevo expediente de contratación. Así, por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 16 de junio de 2015 se aprobó el proyecto de la concesión y el expediente de contratación de la gestión de los servicios de transporte público regular de viajeros de Tolosa, N-I, Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián (LUR-M-05) (clave 7-MO-53/2014-M2), que incluía los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas.

El anuncio de licitación fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 22 de junio y en él se establecía un plazo de 60 días naturales para la presentación de ofertas.

Sin embargo, dos días después de la publicación del anuncio, esto es, el 24 de junio, tuvo entrada en el Registro General de la Diputación Foral un oficio de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco reclamando el expediente administrativo correspondiente a la Resolución 5/2015, que había sido recurrida por las empresas AUTOBUSES GARAYAR S.A., HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA S.A. y COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA S.A. (procedimiento ordinario 280/2015).

El presente recurso especial en materia de contratación pretende que se deje sin efecto la licitación por incurrir los pliegos en diversas infracciones del ordenamiento jurídico. Pide también, como medida cautelar, que no se proceda a la apertura y valoración de las proposiciones hasta que haya sido resuelto.

**CUARTO.-** Tras tener conocimiento de la interposición del recurso contencioso-administrativo 280/2015, y de que, por tanto, la Resolución 5/2015 de este Tribunal no es firme, el Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio ha considerado procedente desistir del expediente de contratación, porque, de continuar adelante con él, se estaría generando una situación de grave inseguridad jurídica que afectaría tanto a la propia Administración como a los interesados.

A propuesta de la titular de dicho departamento, el Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 14 de julio, ha acordado desistir del procedimiento de contratación iniciado mediante acuerdo de 16 de junio de 2015; desistimiento cuyo anuncio ha sido publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 16 de julio.

**QUINTO.-** El desistimiento del procedimiento de adjudicación por parte del órgano de contratación

dakar, xedea desagertu denez (1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren\* eta Administrazio Prozedura Erkidearena, 87.2 artikulua), eta horrela erabakitzen da.

Ondorioz, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administrazioak

### **E R A B A K I T Z E N D U**

Amaitutzat ematea, xedea desagertu denez, AUTOBUSES BETOÑO SL enpresak ezarritako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 49.1 xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

**Donostia, 2015eko uztailaren 22a**

produce la terminación del presente recurso por desaparición sobrevenida de su objeto (artículo 87.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común), y así debemos declararlo.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### **A C U E R D A**

Declarar terminado, por desaparición sobrevenida de su objeto, el recurso especial en materia de contratación interpuesto por AUTOBUSES BETOÑO S.L.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**San Sebastián, 22 de julio de 2015**